

e) Ordua: 13:00.

10.- Beste argibide batzuk: Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoan.

11.- Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

12.- Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: ez da behar.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 4a.- Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.

e) Hora: 13'00 horas.

10.- Otras informaciones: En la Secretaría Técnica de Servicios Generales

11.- Gastos de anuncios: Serán de cuenta del adjudicatario

12.- Fecha de envío del anuncio al Diario Oficial de las Comunidades Europeas: No procede en este caso

Vitoria-Gasteiz, a 4 de diciembre de 2007.- El Diputado Foral titular del Departamento de Administración Foral, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA



Udalak

AMURRIO

8373

Amurrioko udalbatzaren 2007ko urriaren 4ko erabakia, Amurrioko 11.2 industria egikaritze unitatearen hiri antolamendurako plan bereziari buruzkoa. Behin betiko onarpena.

Udalbatzaren 2007ko urriaren 4ko osoko bilkuraren erabaki baten bidez, behin betiko onarpena eman zitzaion Amurrioko 11.2 industria egikaritze unitatearen hiri antolamendurako plan bereziari.

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Planeamenduaren Administrazio Erregistroan sartu eta gero, hala xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 89.3. artikuluan, argitara ematen da Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, onartutako hirigintzari buruzko araudiarekin batera.

Amurrioko 11.2 industria egikaritze unitatearen hiri antolamendurako plan berezia behin betiko onartzen duen ebazpenaren aurka (ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du) interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian (Barroeta Aldamar kalea, 10, 2. solairua, BILBO). Horretarako bi (2) hilabete izango dituzte egintza jakinarazi zein argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2007ko abenduaren 3a.- Jarduneko alkatea, LUIS M. ÁLAVA.

I. AGIRIA: MEMORIA.

1. SARRERA. ENKARGUA ETA IDAZLE TALDEA

Espediente hau Amurrioko udalerriko U.E.I.11.2 egikaritze unitateari buruzkoa da. Egikaritze unitate hori egungo arau subsidiarioetan mugatzen eta U.E.I.11 egikaritze unitatearen osagarri da. Azken egikaritze unitate horren gauzatzea oso aurreratuta dago egun.

Parques Industriales Gran Europa Norte SA enpresak eskatuta, hiri antolamendurako plan bereziaren baitan jasoko zen agiri horiek idaztea EUROGES enpresari eskatu zitzaion; hain zuzen ere, José Crespo González arkitekto jaunari, Mario Onzain Ornilla letradu jaunari eta Eleder González Bilbao delineaatzaile jaunari.

2. AURREKARIAK

A.- Amurrioko udal planeamenduko arau subsidiarioak.

B.- Amurrioko arau subsidiarioetako U.E.I. 11.1 eta U.E.I. 11.2 egikaritze unitateetako mugaketaren aldaketari buruzko espedientea.

Municipios

AMURRIO

8373

Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Amurrio de fecha 4 de octubre de 2.007, en relación con el expediente del Plan Especial de Ordenación Urbana de la Unidad de Ejecución Industrial U.E.I. 11.2 de Amurrio. Aprobación definitiva.

Mediante acuerdo plenario, en la sesión celebrada el día 4 de octubre de 2.007, se aprobó definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana de la Unidad de Ejecución Industrial U.E.I. 11.2. de Amurrio.

Cumplido el requisito de depósito previo en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico de la Diputación Foral de Álava exigido por el artículo 89.3 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo, se procede a la publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava junto con la normativa urbanística aprobada.

Contra la resolución de aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.E.I. 11.2, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (C/ Barroeta Aldamar nº 10-2ª Planta, Bilbao).

Lo que se publica para general conocimiento.

En Amurrio, 3 de diciembre de 2007.- El Alcalde en funciones, LUIS MARIANO ÁLAVA.

DOCUMENTO 1. MEMORIA.

1. INTRODUCCION. ENCARGO Y EQUIPO REDACTOR

El presente expediente afecta a la Unidad de Ejecución U.E.I.11.2, del municipio de Amurrio, que aparece delimitada en las NNSS vigentes, constituyéndose asimismo en ámbito complementario de la Unidad de Ejecución U.E.I.11, actualmente en muy avanzada fase de ejecución.

La redacción del presente documento de Plan Especial de Ordenación Urbana se realiza por encargo de la mercantil "Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A.", siendo el equipo redactor del mismo la empresa "EUROGES", y en concreto, el Arquitecto Superior Don José Crespo González, el Letrado Don Mario Onzain Ornilla y el Técnico Delineante, Don Eleder González Bilbao.

2. ANTECEDENTES

A.- Las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Amurrio.

B.- El expediente de Modificación de la delimitación de las unidades de ejecución U.E.I. 11.1 y U.E.I. 11.2 de las NN.SS. de Amurrio.

A.- AMURRIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOAK.

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Sailaren urriaren 5eko 683/98 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Amurrioko udal planeamenduko arau subsidiarioak berraztertzea. Foru agindu hori 1998ko urriaren 23an argitaratu zen ALHAOn (121 zk.).

Ondoren, Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Sailaren uztailaren 15eko 524/99 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartzen zuen ebazpenean ezarritako baldintzak betetzat jo ziren. Horiek horrela, arau subsidiarioak osorik argitaratu ziren ALHAOn (101 zk.) 1999ko abuztuaren 27an.

Planeamendurako tresna horrek udalerriko industriarako hiri lurzoruan definitzen du 11.2 egikaritze unitatea.

Arau subsidiarioetako 193.bis artikulua arabera, hirigintza eremu horretako parametroak ondokoak dira:

193.BIS artikulua.- U.E.I. 11.2

a) Azalera gordina: 14.066 m².

b) Aprobetxamendu baldintzak:

- Aprobetxamendu koefizientea: 0,80 m²/m².

- Eraikinak har dezakeena, gehienez: lurzatiaren azalaren % 60.

- Altuera, gehienez: 15 m.

- Mugetara tartea: altueraren erdia. Gutxienez, 5 m.

• Lurzatiaren azalera, gutxienez: 5.000 m².

c) Erabiltzeko baldintzak:

- Erabilera nagusia: industria.

• Baimendutako erabilerak:

I (1, 2, 3, 4, 5)

C (1b, 1c,3)

G (2a) - EI (1, 3)

d) Kudeaketa: eraikitzeko baimena eman aurretik xehetasun azterlana eta urbanizazio proiektua idatziko dira. Jabari eta erabilera publikorako lagako dira antolamendu planetan lurzati pribatizagarri kalifikazioa duten lurzati mugen barruan ez dauden lurzoruk.

Eremu horren behin betiko mugaketa U.E.I. 11.1 eta U.E.I. 11.2 egikaritze unitateetako mugaketaren aldaketari buruzko espedientearen garatu zen. Aipatutako espediente hori Amurrioko Udalak onartu zuen.

B.- AMURRIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U.E.I. 11.1 ETA U.E.I. 11.2 EGIKARITZE UNITATEETAKO MUGAKETAREN ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEA.

Amurrioko Gobernu Batzarraren 2004ko uztailaren 8ko ebazpen baten bidez Amurrioko arau subsidiarioetako U.E.I. 11.1 eta U.E.I. 11.2 egikaritze unitateetako mugaketaren aldaketari buruzko proiektua behin betiko onartu zen. Proiektu horrek egikaritze unitate bien mugak aldatzen zituen aprobetxamenduak hobetzeko. Aipatutako ebazpen hori 2004ko abuztuaren 6an argitaratu zen ALHAOn (90 zk.).

Amurrioko U.E.I. 11.1 eta U.E.I. 11.2 egikaritze unitateetako egungo mugaketa aipatutako espedientearen emaitza da eta hari lotzen zaio dagokigun aldaketa, xehetasun antolamendu berria definitzeko.

Mugaketa berri honen ondoren, U.E.I. 11.2 egikaritze unitateak 24.562 metro koadro ditu.

Egikaritze unitateko gainerako parametroek, indarrean diren arau subsidiarioetan definitutakoek, indarrean jarraitzen dute.

Egikaritze unitateen mugaketari buruzko aldaketa espedienteak Amurrioko indarrean dauden arau subsidiarioetan ezarritako zonakatzeari eusten zion, U.E.I. 11.1 eta U.E.I. 11.2 egikaritze unitateetarako. Hau da, ez zuen eremu horretako antolamendu xehekatua aldatzen, ezta bertan eraiki beharreko eraikinetako lerroakurak eta sestrak ere, hots, egikaritze unitateetako mugak baino ez zituen aldatzen, eta, hasiera batean, bi unitateren arteko trapezio itxurako lurzati pribatu bat diseinatzen zenez gero, lurzati pribatu hori 11.2 egikaritze unitateari gehitzen zion.

A.- LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DE AMURRIO.

Mediante Orden Foral 683/98, de 5 de Octubre de 1998 del Departamento de Urbanismo, Arquitectura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava se aprobó definitivamente la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Amurrio (BOTHA N° 121, de 23 de Octubre de 1998).

Posteriormente, mediante Orden Foral 524/99, de 15 de Julio de 1999 del Departamento de Urbanismo, Arquitectura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, se declararon cumplidas las condiciones impuestas en la anterior resolución de aprobación definitiva, publicándose la normativa íntegra de las Normas Subsidiarias en el BOTHA N° 101, de 27 de Agosto de 1999.

Este instrumento de planeamiento define en el suelo urbano industrial del municipio la Unidad de Ejecución 11.2.

De acuerdo con el artículo 193 bis de las Normas Subsidiarias, los parámetros de este ámbito urbanístico son los siguientes:

Artículo 193 BIS.- U.E.I. 11.2

a) Superficie Bruta: 14.066 m².

b) Condiciones de Aprovechamiento:

- Coeficiente de Aprovechamiento: 0.80 m²/m²

• Ocupación Máxima de la Edificación: 60% sobre superficie aportada.

- Alturas Máximas: 15 m.

• Separación a Linderos: La mitad de la altura. Mínimo 5 m.

• Parcela Mínima: 5.000 m².

c) Condiciones de Uso:

- Uso Dominante: Industrial.

• Usos Permitidos:

I (1, 2, 3, 4, 5)

C (1b, 1c, 3)

G (2a) - EI (1, 3)

d) Gestión: Previa a la concesión de la licencia de edificación se redactará un Estudio de Detalle y un Proyecto de Urbanización. Se cederán para uso y dominio público los suelos no incluidos dentro de la delimitación de la parcela privatizable que figura en los planos de ordenación.

La delimitación definitiva de este ámbito urbanístico fue desarrollada en el expediente de "Modificación de la Delimitación de las Unidades de Ejecución U.E.I. 11.1 y U.E.I. 11.2". El citado expediente han sido aprobados por el Excmo. Ayuntamiento de Amurrio.

B.- EL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE LA DELIMITACIÓN DE LAS UNIDADES DE EJECUCIÓN U.E.I. 11.1 Y U.E.I. 11.2 DE LAS NN.SS. DE AMURRIO.

Mediante resolución de la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Amurrio de 8 de Julio de 2004, (BOTHA N° 90 de 6 de Agosto de 2004) se aprobó definitivamente el "Proyecto de Modificación de la Delimitación de las Unidades de Ejecución U.E.I. 11.1 y U.E.I. 11.2 Definidas en las NN.SS. de Amurrio", en virtud del cual, se alteró el límite común de sendos ámbitos urbanísticos con la finalidad de optimizar la materialización de sus aprovechamientos.

La delimitación actual de las Unidades de Ejecución Industrial 11.1 y 11.2 de Amurrio es la que resulta del mencionado expediente y es a la que se ciñe la presente modificación al objeto de definir su nueva ordenación de detalle.

De acuerdo con esta nueva delimitación la U.E.I. 11.2 tiene una superficie de 24.562 m².

El resto de parámetros de la unidad definidos en el artículo 193 bis de las Normas Subsidiarias vigentes se mantienen.

El expediente de modificación de la delimitación de las unidades de ejecución, mantenía inalterable la zonificación establecida en las vigentes NNSS de Amurrio para el ámbito de las dos unidades (UEI 11.1 y UEI 11.2). Es decir, no cambiaba la ordenación pormenorizada de este ámbito y tampoco cambiaba las alineaciones y rasantes de las edificaciones a construir en él, simplemente modificaba los límites de las unidades, y como inicialmente se diseñaba una parcela privada, de forma trapezoidal, a caballo entre las dos unidades, lo que hacia era incorporar toda esta parcela privada dentro de la unidad 11-2.

Egun indarrean den antolamenduak bi helburu ditu:

- Mugakide den U.E.I.11-1 egikaritze unitatea osatzea, hirigintza aprobetxamendua hobetzeko irtenbide logikoagoa zehaztuz.

- Egikaritze unitatearen erdian lurzati eraikigarria sortzea, horrela Amurrioko industrialdeko zona hori osatuz. Lurzati horretan eraikin bat eraiki daiteke.

Eraikigarri den habeartearen lerrokadurei dagokienez, arau subsidiarioetan egiten den proposamena ez da industriaren garapenerako egokiena, zeren eta asmo den eraikinaren lerrokadurak ez baitira egokienak ohiko industria jardueretarako. Gainera, zonakatzeko horrek gauza daitekeen aprobetxamendua eskasa da planeamendu orokorrak ahalbidetzen duenarekin erkatuz gero. Hori dela eta, zonakatzeko aldatu egin behar da. Aldaketa horrek bi helburu ditu. Batetik, eraikuntzaren ikuspuntutik itxura koherenteagoa duten habearteak egitea eta, bestetik, arauetan xedatutako gehieneko mugen barruan bada ere, aprobetxamendu handiagoa lortzea.

3. EGUNGO EGOERA. HIRIGINTZA ETA INGURUA

Hirigintza:

U.E.I.11.2 egikaritze unitatea, Amurrioko udal planeamenduko arau subsidiarioek industriarako hiri lurzoru sailkatzen dutena, erabaki honen 2. puntuan (aurrekariak) jasotako zehaztapenekin bat etorriz mugatzen (ingurua eta hirigintza) da.

Haren antolamendu xehekatua indarrean dagoen udal planeamenduan jasotzen da eta U.E.I. 11.1 eta U.E.I. 11.2 egikaritze unitateetako mugaketaren aldatetari buruzko proiektuaren espedientearekin bat dator. Hori guztia, gainera, espediente honetako agiri grafikoetan -informazio planoak- ageri da.

Hauexek dira indarreko planeamendu nagusiak jasotzen duen U.E.I. 11.2 egikaritze unitatearen zonak:

Bide publikoak (B.Pu): 6.945 m².

Berdegune publikoa (BGP): 10.068 m².

Industrialde pribatua: 7.550 m².

Antolatutako azalera, guztira: 24.562 m².

Hala ere, neurtze lan gehiago egin denez gero, eta zonakatzeko horretan trenbide instalazioetarako zona pribaturik ageri (egungo habeartearen barruan dagoen terminala) ez denez gero, ondoren adieraziko den zonakatzeko egongo da indarrean. Zona horiek besteen antzekoak izango dira, baina trenbide instalazioetarako zona pribatua agertu denez, honela geratuko dira:

Bide publikoak (B.Pu): 6.578 m².

Berdegune publikoa (BGP): 9.495 m².

Industrialde pribatua: 7.500 m².

Trenbide instalazioetarako zona pribatua: 989 m².

Antolatutako azalera, guztira: 24.562 m².

Ingurua:

UEI.11.2 egikaritze unitateak jatorriz 24.562 metro koadroko azalera du, hiruki itxurakoa da hein batean, eta erpina zubian izango du; hain zuzen ere, antzinako Bilbao-Burgos errepidea eta Mirandako trenbidea gurutzatzeko zubian. Beste unitatearekin, ekialde-mendebaldeko ardatzarekin (trenbidearekiko zut dago), egiten duen muga, 175 metro koadroko azalera du.

Eremuak topografia malkartsua du, eta horren ondorioz lur asko mugitu beharko da, bi plataforma egiteko 245 eta 251 kotetan. Plataforma horietara 248 kotan egindako bide batetik joanez heltzen da; bide hori % 4ko maldarekin eginez gero, eraikinak okupatutako lehenengo plataformara (245eko kota) iritsi daiteke, eta hortik bigarren plataformara (251eko kota), bide pribatu batetik joanda. Egikaritze unitatearen hegoaldean (bertan ez dago eraikinik) dagoen maldak eutsi egin dio lurrak berak duen maldari (% 6); punturik garaiena hegoaldean dago (253), eta punturik baxuena, berriz, ipar ekialdean (240), trenbidearen aldamenean.

La ordenación vigente tiene un doble objetivo:

- Por un lado, complementar la unidad de ejecución U.E.I.11-1 de la que es colindante, estableciendo una solución más lógica desde el punto de vista de la materialización de los aprovechamientos urbanísticos.

- Y por otro lado, ordenar una parcela edificable en la parte central de la unidad de ejecución en la que se puede construir un edificio, completando de esta forma esta zona industrial del municipio de Amurrio.

Sin embargo la propuesta que se hace en las Normas, en cuanto a las alineaciones del futuro pabellón, no es la más adecuada para un desarrollo industrial, ya que las alineaciones del edificio propuesto no son las más óptimas para las tipologías industriales al uso, y además, con esa ordenación (zonificación), el aprovechamiento resultante materializable es muy reducido, en relación con el aprovechamiento posibilitado por el planeamiento general. Es por ello por lo que entendemos que debe modificarse la zonificación establecida con una doble intencionalidad: hacer pabellones con tipologías más coherentes desde el punto de vista constructivo, e intentar conseguir un mayor aprovechamiento siempre dentro de los límites máximos establecidos en las Normas.

3. ESTADO ACTUAL. CONTEXTO URBANÍSTICO Y FÍSICO

Contexto urbanístico:

Para la Unidad de Ejecución U.E.I.11.2, clasificada como Suelo Urbano de Uso Industrial, en el documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de Amurrio, queda establecido su contexto urbanístico y delimitación de acuerdo con las especificaciones recogidas en el punto 2 de este documento, titulado "Antecedentes".

Su ordenación pormenorizada es la que se recoge en el documento del planeamiento general vigente, la cual se corresponde con el expediente titulado "Proyecto de Modificación de la Delimitación de las Unidades de Ejecución U.E.I.11.1 y U.E.I.11.2". Todo ello queda recogido, así mismo, en la documentación gráfica, -planos de información-, del presente expediente.

La zonificación de la U.E.I. 11.2, que se recoge en el planeamiento general vigente es la siguiente:

Vialidad Pública (V.Pu.): 6.945 m².

Zona Verde Pública (Z.V.): 10.068 m².

Zona Industrial Privada: 7.550 m².

Total Superficie Ordenada: 24.562 m².

Sin embargo, realizadas nuevas mediciones y viendo además que la zonificación no recogía una zona privada vinculada a instalaciones ferroviarias (terminal que entra dentro de la nave existente) se determina que la zonificación realmente vigente es la que a continuación se presenta, la cual es muy parecida a la anterior pero con la aparición de la zona privada de instalaciones ferroviarias:

Vialidad Pública (V.Pu.): 6.578 m².

Zona Verde Pública (Z.V.): 9.495 m².

Zona Industrial Privada: 7.500 m².

Zona Privada Instalaciones Ferroviarias 989 m².

Total Superficie Ordenada: 24.562 m².

Contexto Físico:

La Unidad de Ejecución U.E.I.11.2 comprende una superficie de 24.562 m originalmente, con una forma ligeramente triangular, cuyo vértice se formaría en el puente que constituye el cruce de la antigua carretera Bilbao-Burgos con el ferrocarril de Miranda. En su colindancia con la otra unidad, eje Este-Oeste (perpendicular al ferrocarril), tiene una dimensión en torno a 175 m.

El ámbito asienta sobre una difícil topografía que obligará a importantes movimientos de tierras con el fin de lograr dos plataformas generadas a la cota 245 y 251. A estas plataformas se accede desde un vial que parte de la cota 248 y que con una pendiente en torno al 4% alcanza la primera de las plataformas ocupada por la edificación (cota 245), para, desde aquí, subir con un vial privado hasta la segunda plataforma (cota 251). La zona Sur de la Unidad de Ejecución, libre de edificación, mantiene la pendiente natural del terreno (6%), situándose el punto más alto en el extremo Sur (253) y el punto más bajo en su extremo Noreste (240) junto al ferrocarril.

Eremuaren barruan, gainera, familia bakarreko bizitegitarako eraikin bat dago. 50 metro koadro ditu solairuko, eta zaharrak diren senar-emazte batzuen bizileku da. Erabilera hori antolamenduz kanpo dago; hala ere, berriro lurzumatikatzeko proiektuak barne har dezake aldi baterako, Amurrioko udalarekin bat etorri, baldin eta bertan bizi direnek okupatzen jarraitzen badute (Martín Villanueva Leal de Ibarra eta haren emaztea).

Eremua, guztira, beste hainbat jaberren 8 lurzutatik osatzen dute. Hona hemen jabeok:

Dentro del ámbito de localiza un pequeño edificio residencial unifamiliar de unos 50 m² de planta que constituye la vivienda habitual de un matrimonio de muy avanzada edad. Este uso se establece en "Fuera de Ordenación Expresa", pudiendo el proyecto de reparcelación, de acuerdo con el Ayuntamiento de Amurrio, tolerarlo transitoriamente en tanto este ocupado por los moradores actuales (D. Martín Villanueva Leal de Ibarra y su esposa).

El ámbito en su totalidad lo conforman 8 parcelas de otros tantos propietarios que a continuación se detallan.

JABETZAREN EGITURA

FINKA	TITULARRA	HELBIDEA	AZALERA
01	Parques Industriales Gran Europa Norte, SA.	Posta kalea, 38, 2. solairua. 01004 VITORIA-GASTEIZ	9.851,00 m ²
02	Parques Industriales Gran Europa Norte, SA.	Posta kalea, 38, 2. solairua. 01004 VITORIA-GASTEIZ	1.020,67 m ²
03	Parques Industriales Gran Europa Norte, SA.	Posta kalea, 38, 2. solairua. 01004 VITORIA-GASTEIZ	78,23 m ²
04	Parques Industriales Gran Europa Norte, SA.	Posta kalea, 38, 2. solairua. 01004 VITORIA-GASTEIZ	1.036,45 m ²
05	Parques Industriales Gran Europa Norte, SA. (% 65,625%) Acha sendia (% 34,375)	Posta kalea, 38, 2. solairua. 01004 VITORIA-GASTEIZ	3.380,68 m ²
06	Parques Industriales Gran Europa Norte, SA.	Posta kalea, 38, 2. solairua. 01004 VITORIA-GASTEIZ	6.378,06 m ²
07	Tubacex, SA.	Orduña-Bilbao errepidea, zk.g. 01470 AMURRIO	1.030,11 m ²
08	Trenbide azpiegituren administratzailea (TAD)	Plaza Biribila, 2, 4. solairua. 48008 BILBAO	1.305,80 m ²

ESTRUCTURA DE LA PROPIEDAD

FINCA	TITULAR	DIRECCIÓN	SUPERFICIE
01	Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A.	Postas nº 38-2º 01004 VITORIA-GASTEIZ	9.851,00 m ²
02	Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A.	Postas nº 38-2º 01004 VITORIA-GASTEIZ	1.020,67 m ²
03	Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A.	Postas nº 38-2º 01004 VITORIA-GASTEIZ	78,23 m ²
04	Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A.	Postas nº 38-2º 01004 VITORIA-GASTEIZ	1.036,45 m ²
05	Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A. (65,625%) Familia Acha (34,375%)	Postas nº 38-2º 01004 VITORIA-GASTEIZ	3.380,68 m ²
06	Parques Industriales Gran Europa Norte, S.A.	Postas nº 38-2º 01004 VITORIA-GASTEIZ	6.378,06 m ²
07	Tubacex, S.A.	Ctra. Orduña-Bilbao s/n 01470 AMURRIO	1.030,11 m ²
08	Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF)	Plaza Circular, 2-4º 48008 BILBAO	1.305,80 m ²

Azalera pribatua, guztira, 24.090 metro koadrokoa da. Gainontzeko 472 metro koadroak (jatorrizko 24.562 metro koadroak osatu arte) trenbideen jabari publikoan dagoen unitate baten azalera lerro batenak dira. Ez da egokia metro horiek, duten izaeratik, aldaketa puntual honetan proposatutako mugaketan sartzea, halaxe adierazi du Trenbide Azpiegituren Administratzaileak (TAD), unitatea martxan jartzeko egin diren bileretan.

4. UEI 11.2. EGIKARITZE UNITATEAREN HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIARI BURUZKO ESPEDIENTE HONEN XEDEA KOKAPENA

UEI 11.2 egikaritze unitatearen hiri antolamendurako plan bereziari buruzko espediente honek unitate horren antolamendu xehatua egitea du xede.

Bi unitateak batera antolatzea proposatzen da, biak direlako elkarren osagarri bai ezaugarri fisikoen aldetik bai zona kontuan ere; beraz, nola toki sistemak hala berdeguneak, sarbideak eta zirkulaziorako bideak erdi bana erabili ahal izango dira.

Horiek horrela, eta bi unitateen jabetza gehiena enpresa berarena denez gero, bi eremuetako habearteak ere erdi bana erabiltzea proposatzen da, eta hori guztia lanak, batez ere bideen antolamendua, eremuaren topografiara hobeto egokitzeko eta funtzionalago izateko; baita antolamendua egokiago izan dadin ere, etorkizunean egingo diren industria habearteak ezartzeko.

Horrela, "P11.2-C" lurzutatia izango den horretan egin asmo den eraikinaren lerrokadurak eta UEI.11.1 unitate mugakidearen "P11.1-C" lurzutatia elkarren osagarri izango dira; horren ondorioz, nahitaez garatu beharko dira bi lurzuti horiek proiektu bakar baten bidez, halaxe ezartzen baitu unitate horretarako onartutako xehetasunezko azterlanak, eta jakina, baita Amurrioko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen agirian ezarritako aprobetxamendu parametroek ere.

La superficie privada suma un total de 24.090 m². Los 472 m² restantes, hasta completar los 24.562 m² originales, pertenecen a una franja de superficie de la unidad que se sitúa sobre el dominio público ferroviario y que por su propia naturaleza no procede su inclusión en la delimitación propuesta por esta Modificación Puntual, tal y como nos ha hecho notar el Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF), en las conversaciones que hemos mantenido como consecuencia de la puesta en marcha de la unidad.

4. OBJETO DEL PRESENTE EXPEDIENTE DE PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA UEI 11.2. LOCALIZACIÓN

El objeto del presente expediente del Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.E.I. 11.2 es establecer una nueva ordenación pormenorizada en dicha unidad.

Se propone una ordenación conjunta para ambas unidades, ya que ambas son complementarias física y zonalmente, compartiendo sistemas locales como espacios verdes, accesos y viales de circulación.

Desde este punto de vista, y dado que la práctica totalidad de la propiedad de ambas unidades corresponde a la misma empresa, se propone incluso compartir nave entre ambos ámbitos, todo ello, con el fin de que el resultado final, principalmente en cuanto a la ordenación viaria, se adapte mejor a la topografía del ámbito, y el resultado sea el más coherente desde el criterio funcionalidad así como el más racional para la implantación de los futuros pabellones industriales.

De esta forma se recogen las alineaciones del edificio proyectado en la futura parcela "P11.2-C" en complementariedad con la parcela "P11.1-C" de la unidad colindante UEI 11.1, imponiéndose la obligatoriedad de que ambas parcelas se desarrollen mediante un proyecto único, tal y como se establecía en el Estudio de Detalle aprobado para dicha unidad, y por supuesto de acuerdo con los parámetros de aprovechamiento establecidos en el documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de Amurrio.

Arau horiek xehetasunezko azterlan bat eta urbanizazio proiektu bat idaztea eskatzen dute, eraikitzeo baimena eman baino lehen. UEI. 11.2 unitatearen egingo diren pabilioien antolamendu xehea ezartzen da espediente honen bidez; beraz, agiri hau xehetasunezko azterlan da berez, eta ez da zertan gero beste azterlan bat egin, baldin eta aurkeztutako antolamenduari eusten bazaio, eta ez bada aldatu nahi unitate horretarako ezarritako gehienezko lerrokadura mugen barruan.

Egikaritze unitate hori Aldaiturriagako industrialde inguruan dago, Amurrioko hirigunearen hego ekialdean; hain zuzen ere, Bilbao-Burgos errepide zahararen eta trenbidearen trazaduraren artean.

UEI.11.2 egikaritze unitatearen mugak:

-Iparraldeko muga: industriako UEI.11.1 egikaritze unitatea.

-Ekialdeko muga: Bilbao-Castejon trenbidearen trazadura.

-Mendebaldeko muga: Bilbao-Burgos errepide nazional zaharra.

-Hegoaldeko muga: errepidea eta trenbidea gurutzatzen diren guinea.

5. - PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA

Finkaren deskribapena

Arau subsidiarioek unitaterako proposatutako bideak aldatu egiten dira: zaku hondoa kendu egingo da, eta iparraldeko bidea, UEI 11.1 egikaritze unitatearen mugakide izan eta bertara sartzeko balio zuena, lekuz aldatuko. Bide horien orde, "C" erako bide bat jarriko da 245 kotan, eta halaxe eutsiko dio ekialdeko muturrera arte. Hortik trenbidearekiko paralelo jaitsiko da, 240 kotara arte, eta hor 11.1 unitateko eraikina dago.

Industriako bi lurzati pribatu ezarri dira: P11.2-C eta P11.2-D. Lehenengoan habearte bat dago, bi altueratan diseinatuta, lurren aldeak hori egiteko aukera ematen baitu. Batera, aurreko bidetik sar daiteke (245 kota), eta bestera (bi unitateek erdi bana erabiltzen dute) UEI.11.1 egikaritze unitatearen kaletik, unitate horretan dagoen eraikinaren aurrez aurre dagoenetik (240 kota). P11.2-D lurzatiarako bi habearte diseinatu dira, elkarri paralelo eta arkugaineratuta; bata +245 kotako bide horren alboan sortu den plataformaren aldamenean, eta bestea 251 kotan sortu den plataforman. Egingo diren habearten aurrealdean, kamioiek, zein beste ibilgailu batzuek, maniobrak egiteko lekuak egokitu dira, eta eraikina hainbat eraikitze unitatetan zatitu ahal izango da, nahiz eta ingurukari berari eutsiko zaion.

Habearteek Urduñako errepidearekiko ia ortogonal daude, eta eraikuntza lerroa errepide horren galtzadaren mugaketako linea zuritik 25 metrora dute; horrela, Arabako Errepideen Foru Araua eta Errepideen Arloko Plana betetzen dira.

Horiek horrela, eta bi unitateen jabetza gehiena enpresa berarena denez gero, bi eremuetako habearteak erdi bana erabiltzea proposatzen da, eta hori guztia lanak, batez ere bideen antolamendua, eremuaren topografiara hobeto egokitzeko eta funtzionalago izateko; baita antolamendua egokiagoa izanik, etorkizunean egingo diren industri habearteak ezartzeko ere.

11.1 unitateko eraikinaren osagarri izango den beste eraikin bat sortzea

Eremuaren hegoaldean 11.2-C lurzatia okupatzen duen eraikina egin da, lurren artean dagoen aldeak hori egiteko aukera ematen baitu, eta eraikin hori eta 11.1-C lurzatia (antzinako 11.1.A lurzatiatik ateratakoa) osagarri dira. Eraikina gauzatu da mugakide diren bi unitateen egingo diren eraikinak jasotzen dituen proiektu bakarraren arabera. Eraikinerari bi unitateen osagarri izango den bidetik sartu ahal izango da, baita erakina dagoen lurzatiak (11.1-A lurzatia) eta lurzati honek maniobrak egiteko erabiltzen duten lekutik ere.

11.2 unitatearen antolamendurako xedeak

Unitate horretarako antolamendu berriak, agiri grafikoetan zehaztutakoak, oinarritzko bi xede ditu:

- Eremuaren antolamendua eta habearten kokapena topografia malkartsura egokitzea; horretarako, zenbait lekutan egin beharreko lur erauzketatik ateratako lurak beste leku batzuk betetzeko erabiliko dira. Modu horretan, habearteak ezartzea optimizatuko da, eta indarreko

En dichas Normas se exige la redacción de un Estudio de Detalle y un proyecto de urbanización previamente a la concesión de licencia de edificación. Como en esta unidad U.E.I. 11.2, se está estableciendo con este expediente una pormenorizada ordenación de los futuros pabellones, entendemos que el presente documento, se constituye así mismo en Estudio de Detalle, no siendo en consecuencia necesario un estudio posterior, siempre y cuando se mantenga la ordenación presentada y no se quiera modificar la misma dentro de las alineaciones establecidas como máximas para esa unidad.

La Unidad de Ejecución referida, se localiza junto al Polígono Industrial de Aldaiturriaga, al Sureste del núcleo de Amurrio entre la antigua carretera Nacional Bilbao-Burgos y el trazado del ferrocarril.

La Unidad de Ejecución U.E.I.11.2 limita:

- al Norte, con la Unidad de Ejecución Industrial U.E.I.11.1.

- Al Este, con el trazado del ferrocarril Bilbao-Castejon.

- Al Oeste, con la antigua carretera nacional Bilbao-Burgos.

- Al Sur, con el cruce de la carretera y el ferrocarril

5. - DESCRIPCIÓN DE LA ORDENACIÓN PROPUESTA

Descripción de la ordenación

Se modifica la vialidad que proponían las NNSS para la unidad, eliminándose el vial en fondo de saco, y desplazando el otro vial, en el norte, que se diseñaba en colindancia con la U.E.I 11.1, y que servía de acceso a la misma; sustituyéndose todo ello por un vial en "C" que arrancando a la cota 245 se mantiene en la misma hasta el extremo "Este", donde baja paralelo al ferrocarril hasta alcanzar la cota 240, donde se encuentra el edificio existente en la unidad 11.1.

Se establecen dos parcelas privadas industriales, la P11.2-C y la P11.2-D; la primera recoge una nave, que, aprovechando el desnivel existente, se diseña en dos alturas, una accesible desde el vial anterior (cota 245), y la otra (compartida entre las dos unidades) que se accede desde la calle de la U.E.I.11.1 frente a las oficinas del edificio existente en esta unidad (cota 240). En la parcela P11.2-D, se diseñan dos futuras naves se establecen de forma paralela y trasdosada entre ellas, una junto a la plataforma que se genera al lado del citado vial que discurre a la cota +245, y la otra en la plataforma que se genera a la cota 251. En los frentes de las futuras naves se generan playas de maniobra de camiones, u otros vehículos, con la posibilidad de fragmentar el edificio en distintas unidades edificatorias manteniendo la envolvente común.

Las naves se sitúan de forma casi ortogonal a la carretera a Orduña, situando su línea de edificación a 25 metros de la línea blanca de delimitación de la calzada de dicha carretera, cumpliendo en este sentido la Norma Foral de Carreteras de Álava, y el Plan Sectorial de Carreteras.

Desde este punto de vista, y dado que la práctica totalidad de la propiedad de ambas unidades corresponde a la misma empresa, se propone compartir naves entre ambos ámbitos, todo ello, con el fin de que el resultado final, principalmente en cuanto a la ordenación viaria, se adapte mejor a la topografía del ámbito, y el resultado sea el más coherente desde el criterio funcionalidad así como el más racional para la implantación de los futuros pabellones industriales.

Generación de un edificio complementario con el de la unidad 11.1

En el extremo Sur del ámbito, aprovechando el desnivel existente, se genera un edificio que ocupa la parcela 11.2.- C, complementario con la parcela 11.1-C (desgajada de la antigua parcela 11.1.A), y que se ejecutará con proyecto único que recoja los edificios que se proyecten en ambas unidades colindantes. Este edificio tendrá acceso por el vial que se ejecute en complementariedad entre las dos unidades, y desde la playa de maniobras común con la parcela en la que se ubica la edificación existente (parcela 11.1-A).

Objetivos de la nueva ordenación de la unidad 11.2

La nueva ordenación para esta unidad, definida en la documentación gráfica, responde fundamentalmente a dos objetivos:

- Adaptar la ordenación y la ubicación de los pabellones a la difícil topografía existente, utilizando el desmonte a realizar en unas partes para rellenar en otras, sin tener que trasladar tierras a ningún vertedero; de tal manera que se optimice más la implantación de

planeamendu nagusiaren gutxi gorabeherako antolamenduak ezarritakoa baino gehiago okupatzeko aukera eman; edozelan ere, beti okupatuko da planeamendu nagusi horrek baimendutako gehieneko aprobetxamendua baino gutxiago.

- Halaber, bi unitateak elkarren osagarri direnez, aldaketa honen bidez eraikin osagarriak egitea proposatzen da, sarbide, bide eta jabezi dagokienez. Hau da, eraikin horiek bi eremuetan kokatuko dira. Horretara, P.11.2-C lurzatiko eraikinaren zati bat UEI.11.1 egikaritze unitatearen industriako P11.1A lurzati pribatuan egingo da, eta bertara UEI.11.1 egikaritze unitatetik sartuko da. Eraikina gauzatuko da mugakide diren bi unitateetan egingo diren eraikinak jasotzen dituen proiektu bakarraren arabera.

Planeamendu nagusian ezartzen diren espazio libreen toki sistema dela eta, espazio libre horien azalera handitu egiten da hiri antolamendurako plan berezi honetan.

Esan behar da UEI.11.2 unitateak ekialdetik trenbidearekin egiten duen muga apur bat ukitu egin dela, halaxe eskatu baitu trenbide azpiegituren administratzaileak (TAD); izan ere, mugaketa erratu bat dagoela ohartarazi du, muga horren barruan erabiltzen ari diren trenbideak sartzan baitira, eta beraz, Trenbideen Sistema Nagusiarenak dira. Hortaz, mugaketa kontua zuzendu egin da.

Aldaketen ondorioz sortutako zonak

Ondoko hauek mugatuko dituzten zonak proposatzen dira, aipatu xedeak oinarri:

- Bide publikoak (Bpu)
- Berdegune publikoa (BG).
- Industria zona pribatua (IZ); ondoko azpizonak ditu:
- Lurzati mugakideetara sartzeko bide pribatuak, zortasunak dituztenak. (BPrZ)

-Erabilera publikoko oinezkoentzako igarobidea

Zonakatzeko hori "08 plano. Antolamendu xehatua" izeneko agirian ageri da.

Proposatutako lurzatiak

Hiri Antolamendurako Plan Bereziak Industriako Zona Pribatua (IZ) bi lurzatiatan banatzen du:

- 11.2-C lurzatiak, iparraldean (sarbidearekiko paralelo dagoen habearte batek okupatzen du. Habearte hori eta unitate mugakidearen P.11.1-A lurzatiaren egingo den eraikina elkarren osagarri dira).

- 11.2-D (bi altueratan egindako bi habeartek okupatzen dute, bata 11.2-C lurzatiaren habeartearekiko paralelo dago, sarbidearen alboan, 245 kotan; bestea arkugaineratuta eta aurreko habeartearekiko paralelo, 251 kotan).

Lurzati horiek "09 plano. Lerrokadurak eta sestrak" izeneko agirian ageri dira.

Ordenantzak

Area eraikigarrietako hiritartze eta eraikitze ordenantzak direla eta, Amurrioren indarrean dauden arau subsidiarioek jasotako ordenantzak aplikatuko dira.

6. HIRITARTZEKO ARRAZOIA

Azalera taula

- U.E.I.11.1 egikaritze unitatearen azalera: 24.090,00 m²
- Bide publikoak (Bpu): 2.111,16 m²
- Berdegune publikoa (BG): 9.978,98* m²
- Trenbide instalazioetarako zona pribatua: 455,17 m²
- Industria zona pribatua (IZ): 11.544,40 m²
- 11.1 C lurzatiak: 4.239,53 m²
- 11.1 D lurzatiak: 7.304,87 m²

*Zona horretan antolamenduz kanpo uzten den etxebizitzak hartzen dituen 50 metro koadroak jasotzen dira. Etxe hori berriro lurzatikatzeko proiektuan aldi baterako onartu ahal izango da.

Hirigintza parametroak betetzea

ARAU SUBSIDIARIOETAN ESKATUTAKO PARAMETROAK

- Gehieneko azalera eraikia: 19.272 metro koadro eraiki (0,8 metro koadro metro koadro azalera gordinetako)

pabellones, permitiéndose una ocupación superior a la establecida en la ordenación orientativa del planeamiento general vigente, pero que en todo caso queda siempre muy por debajo del máximo aprovechamiento posibilitado en el citado planeamiento general.

- Así mismo, dada la complementariedad existente entre las dos unidades, en cuanto accesos, viales, e incluso propietarios, se propone con la presente modificación el desarrollo de edificaciones que son complementarias, es decir, que tienen su asiento en los dos ámbitos. En este sentido el edificio correspondiente a la parcela P.11.2-C, tiene una parte que se ejecutará dentro de la parcela privada industrial P11.1A, de la unidad U.E.I.11.1 desde la cual tendrá su acceso. Y que se ejecutará con proyecto único que recoja los edificios que se proyecten en ambas unidades colindantes.

El Sistema Local de Espacios Libres que se establecen en el planeamiento general incrementan levemente su superficie en el presente Plan Especial de Ordenación Urbana.

Es importante destacar que el límite Este de la unidad U.E.I.11.2 con el ferrocarril, se corrige muy levemente, a instancia del Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF), que ha puesto de manifiesto la existencia de un error en la delimitación de la misma, al incluir en ella las vías que actualmente están en uso, por lo que pertenecen al Sistema General Ferroviario, a la vista de lo cual, se ha procedido a la corrección de esta incidencia.

Zonificación resultante

Con los objetivos enunciados se propone una zonificación en la que se delimita:

- Vial público (Vpu)
- Zona Verde Pública (ZV)
- Zona industrial privada (ZI), con las siguientes subzonas:
- Vial privado con servidumbre de acceso a las parcelas colindantes. (VPrS)

-Paso peatonal de uso público

Esta zonificación se grafía en el "Plano 08. Ordenación Pormenorizada"

Parcelas propuestas

El Plan Especial de Ordenación Urbana establece la división de la Zona Industrial Privada (ZI) en dos parcelas:

- Parcela 11.2-C en el Norte (ocupada por una nave paralela al vial de acceso, que además es complementaria con la nueva edificación propuesta en la parcela P.11.1-A de la unidad colindante).

- Parcela 11.2-D (ocupada por dos naves en dos alturas, una paralela a la nave de la parcela 11.2-C, junto al vial de acceso a la cota 245, y otra trasdosada y paralela a la anterior, situada a la cota 251).

Estas parcelas se grafían en el "plano 09. Alineaciones y Rasantes"

Ordenanzas

Respecto de las Ordenanzas de urbanización así como las carácter edificatorio de cada área edificable, el presente documento se remite a las ordenanzas contenidas en las vigentes NNSS de Amurrio.

6. JUSTIFICACIÓN URBANÍSTICA

Cuadro de superficies

- Superficie de la Unidad de Ejecución U.E.I.11.1: 24.090,00 m²
- Vial público (Vpu): 2.111,16 m²
- Zona Verde pública (ZV) 9.978,98* m²
- Zona Privada Instalaciones Ferroviarias 455,17 m²
- Zona Industrial privada (ZI) 11.544,40 m²
- Parcela 11.1 - C: 4.239,53 m²
- Parcela 11.1 - D: 7.304,87 m²

*En esta zona están incluidos los 50 m² correspondientes a la ocupación de la vivienda existente que se deja en situación "Fuera de Ordenación Expresa", pudiendo ser tolerada transitoriamente en el proyecto de reparcelación.

Cumplimiento de los parámetros urbanísticos

PARÁMETROS EXIGIDOS EN LAS NNSS

- Superficie máxima construida total: 19.272 m²c (0,8m²/m² de la superficie bruta)

- Eraikinaren azalera, gehienez: 14.454 m² (azalera gordinaren % 60)
- Altuera, gehienez: 15 m
- Mugetara tartea: Altueraren erdia, eta 5 metro gutxienez
- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIKO PARAMETROAK
- Gehieneko azalera eraikia:
- 11.1 C lurzatia: 4.296,92 m²
- 11.1 D lurzatia: 5.672,39 m²
- GUZTIRA: 9.669,31 m²
- Eraikinaren azalera, gehienez:
- 11.1 C lurzatia: 3.230,77 m²
- 11.1 D lurzatia: 4.264,95 m²
- GUZTIRA: 7.495,72 m²
- Altuera, gehienez: 15 m
- Mugetara tartea: agiri grafikoetan jasotakoaren arabera.

- Ocupación máxima de la edificación: 14.454 m² (60% de la superficie bruta)
- Altura máxima: 15m
- Separación a linderos: La mitad de la altura y como mínimo 5m.
- PARÁMETROS DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA
- Superficie total construida:
- Parcela 11.1 C:: 4.296,92 m²
- Parcela 11.1 D: 5.672,39 m²
- TOTAL: 9.669,31 m²
- Ocupación máxima de la edificación:
- Parcela 11.1 C: 3.230,77 m²
- Parcela 11.1 D: 4.264,95 m²
- TOTAL: 7.495,72 m²
- Altura máxima: 15m
- Separación a linderos: Según documentación gráfica.

ARRAZUA-UBARRUNDIA

8372

Administrazioarekiko auzi errekurtsioan agertzeko epatzea.

Arrazua-Ubarrundiako udalak, alkatearen abenduaren 3ko 257/07 Dekretuaren bidez, erabaki du 481/07 administrazioarekiko auzi errekurtsioan agertu eta demandatu jardutea. Errekurtsio hori Juan Luis Oleaga jaunak jarri du, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2 zenbakiko Epaitegian, egitezko bidez desjabetutako finka (Zurbanoko SAU 1 sektorean dago) dela-eta.

Horrako hori iragarki honen bidez jakinarazten zaie interesdunei eta, halaber, jakinarazten zaie bederatzi egun dituztela iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera epaitegian agertzeko beren interesak aldezteko.

Durana, 2007ko abenduaren 3a.- Alkatea, RUFINO SÁEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

ARRAZUA-UBARRUNDIA

8372

Emplazamiento para comparecer en recurso contencioso-administrativo

El Ayuntamiento de Arrázua-Ubarrundia ha resuelto mediante Decreto de Alcaldía nº 257/07 de 3 de diciembre, comparecer como parte demandada en el recurso contencioso administrativo nº 481/07 interpuesto ante el Juzgado de lo Contencioso-administrativo nº 2 de Vitoria-Gasteiz por D. Juan Luis Oleaga Iturrieta frente a la expropiación por vía de hecho de la finca sita en el Sector SAU 1 de Urbano.

Lo que se notifica mediante el presente anuncio a cuantos puedan aparecer como interesados en el expediente emplazándoles al mismo tiempo para que en el plazo de nueve días contados a partir del día siguiente al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, puedan comparecer en el citado Juzgado en defensa de sus intereses.

En Durana a 3 de diciembre de 2007.- El Alcalde, RUFINO SAEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

IRUÑA OKA

8351

Biztanle errolda

Iruña Okako Udalak ondorengoek udal erroldan izena eman dutela jakin du:

- 1.- ARI DA COSTA SILVA. PASAPORTEA: CM 842025
TRAS EL RIO KALEA, 3-3 EZK. LANGRAIZ OKA
- 2.- FATIMA CARDOSO SILVA. PASAPORTEA: CP813453
TRAS EL RIO KALEA, 3-3 EZK. LANGRAIZ OKA
- 3.- LUSCAR AFONSO PAIVA. PASAPORTEA: C0024789
TRAS EL RIO KALEA, 3-3 EZK. LANGRAIZ OKA
- 4.- PLATINNY CARDOSO SILVA. PASAPORTEA: CT036978
TRAS EL RIO KALEA, 3-3 EZK. LANGRAIZ OKA
- 5.- MARCIO EDER DA SILVA. PASAPORTEA: CP420776
TRAS EL RIO KALEA, 3-3 EZK. LANGRAIZ OKA
- 6.- CLARIANA DOS SANTOS. PASAPORTEA: CT912638
TRAS EL RIO KALEA, 3-3 EZK. LANGRAIZ OKA

Horien helbidea eta ohiko etxebizitza ez datoz bat. Beraz, alkateak, 2007ko azaroaren 22ko probidentzia bidez, erabaki zuen bere kabuz dagokion espedienteari hasiera ematea, pertsona horiei udal biztanle erroldatik baja emateko eta jakinarazteko iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun dituztela egoki iriztitako alegazioak aurkezteko.

Langraiz Oka, 2007ko azaroaren 30a.- Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

IRUÑA DE OCA

8351

Padrón de Habitantes

El Ayuntamiento de Iruña de oca, habiendo tenido conocimiento de que la declaración de inscripción padronal de:

- 1.- ARI DA COSTA SILVA. PASAPORTE CM 842025
C/ TRAS EL RIO, 3-3º IZDA. NANCLARES DE LA OCA
- 2.- FATIMA CARDOSO SILVA. PASAPORTE CP813453
C/ TRAS EL RIO, 3-3º IZDA. NANCLARES DE LA OCA
- 3.- LUSCAR AFONSO PAIVA. PASAPORTE C0024789
C/ TRAS EL RIO, 3-3º IZDA. NANCLARES DE LA OCA
- 4.- PLATINNY CARDOSO SILVA. PASAPORTE CT036978
C/ TRAS EL RIO, 3-3º IZDA. NANCLARES DE LA OCA
- 5.- MARCIO EDER DA SILVA. PASAPORTE CP420776
C/ TRAS EL RIO, 3-3º IZDA. NANCLARES DE LA OCA
- 6.- CLARIANA DOS SANTOS. PASAPORTE CT912638
C/ TRAS EL RIO, 3-3º IZDA. NANCLARES DE LA OCA

No coincide/n con el domicilio de residencia habitual, por Providencia de fecha 22 de noviembre de 2.007, acordó incoar de oficio el oportuno expediente para proceder a darle/s de baja en el Padrón Municipal de Habitantes de este Municipio y comunicar el acuerdo, dándole/s audiencia en el expediente a fin de que pueda/n presentar las alegaciones pertinentes en el plazo de quince días a partir del siguiente a la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Nanclares de la Oca, a treinta de noviembre de 2.007.- El Alcalde-Presidente, D. JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.